# Adierazgarri

**Txillardegi**

FRANTZIAKO hauteskundeetan gertatutakoak pentsarazi egin behar luke. Herrigintzan ari direnak asaldatu behar lituzke oso bereziki ; baita gurean ere. Eta oraino areago ezkertar projektutan saiatzen direnak. Frantzian aste hauetan mamitu den deskalabroa, oroz gain, adierazgarria da. Bigarren Internazionaletik datozen alderdiek sekulako arrakastarik lortzen ez dutela gauza ezaguna da. Are gutxiago gizarte-mogimendu indartsurik sortzen. Halaz ere Frantzian gertatutakoak besterik ere idarokitzen bide du. Zertan da SOZIALISMOA BERA, alegia, projektu orokor gisa ? Sozial-demokraziarenak egin du. Sozial-demokraziak nekez lor dezake jadanik herri-mogimendurik ; eta egoera faktikoaren azpi-produktu bat besterik ez bide da.

Guri dagokigunez : Felipe González-en gobernua Mitterrand-ena baino askoz arrakastatsuagoa ez izanik (ustelkeri mailan, adibidez, Madrilekoa agertu bide da gailen), arrazoin handiak daude PSOE-ren deskalabroa somatzeko. (Ez Euskal Herrian bereziki, agian, nahiz porrota agian handiago izan hemen ; baina PSOE-a Hego Euskal Herriko anti-abertzale guztien arragoa eta bilgunea delako).

Arazoa, ordea, hori baino sakonagoa da. Marxismo-leninismoaren porrot historikoaren ondoren, sozial-demokraziak bil zezakeen, itxuraz bederen, ezker etsituaren botoa. Gure arteko batzuk, hain zuzen, gorriena luzaz jasan ondoren, sozial-demokraziaren alderako onginahia eta halako esperantza izkutua gordetzen zuten, are agertzen ere. «Bihur gaitezen zatiketa-gunera, hirugarren Internazionala sortu zen krisigunera ; eta eraiki dezagun bide erdiko sozial-demokrazia gaztetu berria», zion «ex-m.l.» batzuren mezuak.

Frantziako deskalabro osoa ikusita, zer esango ? Areago : zer pentsatuko ? Sozial-demokraziaren porrota ez da marxismo-leninismoarena baino txikiagoa. Zer egin ? Galdera ez da txantxetakoa. Ekialdeko sozial-fazismoan sekula sinetsi ez genuenok, besterik ezean, hala-holako esperantza izpia izan dugu zenbait aldiz ; askatasunean eta berdintasun ekonomikoan sortuko ote zen azkenean herri-mogimendu azkar bat. Partidu bakarreko «sozialismo»az erabat nardaturik, batzuk madarikatu izan duten «hirugarren bide» hori sortu zain geunden. Hots, oraingoz bederen, horrelakorik somatzen ez dela esan behar da.

> *Ezkerrak ez dauka, gaur egun, populua erakarriko duen eredurik : ezker berria asmatu egin behar da.*

Hitz batez : EZKERRAK EZ DAUKA, gaur egun, populua erakarriko duen EREDURIK. Eta, besterik ezean, *sozial-demokraziara hurbiltzeak, ez du ezer* konponduko. Badirudi, hitz batez : haro baten amaiera *iritsi garela.* Berdintasun *ekonomikoa bilatzea helburu* ederra da, dudarik gabe. Kapitalismoa berez da zanpatzailea eta bortxakoia. Dudarik ez. Baina jendeak ez du sinesten ezkerrean : ez batean ez bestean. Ezker berria ASMATU egin behar da. Ez baita hutsaren hurrena!...

Euskal Herriaren nazio-askatasuna, beraz, «sozialismoa»ren garaipenaren mende jartzea ; edota «sozialismoan barrena» lortu nahi izatea, epe laburrean bederen, apostua galtzea da. Garai batez hau esaten zen : «*hay que lograr una unión química entre el proyecto de liberación nacional y el proyecto* socialista»(1). Gaur hori esatea apostu latza egitea da. Projektu sozialista erakargarririk ez baitago.

Beste batean ere idatzi nuenez : sindikalismoa azkartzea. Hori ikusten dut nik. Ez besterik. Eta adjektiborik gabeko aberrigintza eta anti-inperialismoa azkartzea. Ezker abertzalean, gertakari ezin larriago hauek errotik aztertzeko garaia heldu zaigu.

(1) Il faut parvenir à une union chimique entre le projet de libération nationale et le projet socialiste.

# Alain Lamassoure s'engage sur l'institution Pays Basque

*Enbata a rencontré le ministre fraîchement nommé aux Affaires européennes. Nous l'avons interrogé sur la préoccupation première des abertzale, plébiscitée par le questionnaire du forum de Lauga (Enbata n°1269).*

**Enbata** : *Lors du débat à l'IUT de Baiona organisé en partenariat avec la fondation Sabino Arana, vous avez souhaité une «structure pour représenter les intérêts du Pays Basque dans nos relations avec les autres». Pourriez-vous préciser votre pensée ?*

**Alain Lamassoure** : Lors de la campagne électorale, j'ai été à l'écoute de ce pays. J'y ai senti une identité vivante qui mérite bien plus que son respect. Il faut la promouvoir. Je me suis déjà fortement engagé pour que la France signe la charte européenne sur les langues et cultures minoritaires. Mais je suis arrivé à la conclusion que rien ne pourra se réaliser de sérieux sans la reconnaissance de la communauté basque elle-même. Il lui faut donc une institution spécifique pour administrer en propre sa culture et sa langue. Mais au-delà, paraissent évidents les liens affectifs qui unissent naturellement les Basques du Nord et du Sud de la Bidassoa. Il faut que cela se traduise par une étroite coopération économique transfrontalière. L'Europe qui se construit accélèrera cette tendance et j'y veillerai à mon nouveau poste ministériel.



Alain Lamassoure, ministre aux Affaires européennes

**Enb.** : *Cela voudrait-il dire que vous vous ralliez au principe d'un département-région Pays Basque ?*

**A.L.** : Oui. Je m'attèlerai à ce dossier dès ma prise de fonctions. Mon ami Jean Grenet me relaiera là-dessus à la tribune de l'assemblée nationale. Ce qu'a promis et n'a pas tenu François Mitterrand, c'est nous qui le réaliserons.

**Enb.** : *Ne pensez-vous pas que vous rencontrerez d'énormes résistances auprès de vos amis politiques ? Le gouvernement espagnol n'exercera-t-il pas les mêmes pressions qu'il y a quelques années auprès des socia-listes français afin de faire échouer le projet ?*

**A.L.** : Certes, je ne nie pas les difficultés, mais depuis quelque temps je me suis beaucoup consacré à la question. J'ai rencontré à Baigorri Jean Etcheverry-Ainchart qui, à la Libération, avait présenté une proposition de loi «Département Pays Basque» qui malheureusement avait tourné court. Je compte m'inspirer de ce texte de base. En outre, par l'intermédiaire du président navarrais Juan Cruz Alli, je suis entré en rapport avec les dirigeants du partido popular. Or, ce sont eux qui assureront vraissemblablement l'alternance à Madrid en octobre. Nous aurons donc ainsi réuni les conditions nationales et internationales pour donner corps à ce projet d'une institution spécifique du Pays Basque Nord. Les socialistes avaient mal évalué la dimension internationale d'un tel projet. Grâce à mon portefeuille ministériel européen, je me situe à un endroit clé qui me permettra d'intervenir au bon moment et au bon endroit.

**Enb.** : *Pourquoi ne pas appeler cette institution Biltzar pour rester fidèle à la tradition ?*

**A.L.** : Et pourquoi pas...

■ ***Ces propos nous surprennent et nous réjouissent. Nous jugerons aux actes. Chat échaudé...***

## SUR VOTRE AGENDA

- **Du 2 au 28 avril, tous les jours, BIARRITZen** (palais des festivals) : exposition «Restauration de "las Hilanderas", œuvre de Velazquez, par les ateliers du Prado», organisée par Biarritz kultur batzordea.
- **vendredi 2 avril, 21 h, IZURAn** (Haize Berri) conférence «les fors de Navarre» par Manex Goyhenetche.
- **Apirilaren 2an, 201/2etan xuxen, BAIONAn** (Bil txoko) Ibartxola ipuinaldi berria 13 urtetik gorago-kogazte eta helduei eskaintzen die K. Amestoy-ek 8. Korrikaren karietarat.
- **vendredi 2 avril, 13 h, BAIONAn** (place S^t-André) départ du bus via Bordeaux pour assister au procès d'Erik Lechardoy pour désertion, organisé par MAIA-militarismoaren aurka, insumisioaren alde.
- **Apirilaren 3an, 21etan, HENDAIAn** (Variétés zinema) Kantaldi «Txomin Artola eta Amaia Zubiria» - lehenik Manex Muturbeltz - Akelarre eta Gure ikastolak antolatua, Herriko etxearen laguntzarekin.
- **Apirilaren 3an, 21etan, ARBOTIn** (eliza) «kantu eta ohidurazko musika kontzertua» : Leinua-gizon koroa (Iriburukoa) eta Uztaritzeko harmoniak; ondotik erromeria, Burgaintzi eta Haize berri kultur etxeak antolatua.
- **Apirilaren 3 eta 4an ARÜEn**, herriko pestak (Urdiñarbeko maskaradak) **eta GOTAINEn** «Xiru 4 - flauten jeialdia».
- **dimanche 4 avril à l'aube BAIONAn** départ du bus via Bilbo pour l'arrivée de Korrika-8 (retour dans la soirée) inscriptions 59.25.76.09.
- **dimanche 4 avril, 13 h, HAZPARNEn** (mur à gauche) repas-cidrerie organisé par l'ikastola (tél.59.29.14.18).
- **Apirilaren 4an IRUÑAn** (Gaiarre antzokia) «Nafarroa eta Iparraldeko bertsulari xapelketa», Bertsularien lagunak antolatua.
- **dimanche 4 avril, 17 h, BIARRITZen** (Colisée) «Irigoyen anaiak» au lendemain des élections ! organisé par Biarritz kultur batzordea.
- **dimanche 11 avril, à partir de 10 h, ITXASUn, Aberri Eguna**. 22 h, **EZPELETAn**, Kontzertua presoen alde, organisé par EB, EMA, Patxa-Oldartzen.
- **du 6 au 30 avril PARISen** (centre culturel basque, Paris 3^e) exposition «peintures et dessins de Julio Caro Baroja» avec mercredi 7 (la Sorbonne - salle Louis Liard) conférence «Mythes et légendes du Pays Basque» présentée par Agustin Redondo, organisées par Euskal kultur bidean-Centre culturel basque de Paris.

**Notre couverture** : *Julian de Ajuriagerra, décédé le 23 mars 1993, participant à Milafranga à une des toutes premières Korrika.*